

## 6. IKASGAIA. MERKATARIAREN ORDEZKAPENA.

### Laburpena

1. Lankidetza eta ordezkapena merkataritzako kodean
2. Ahalordedun orokorra
  - 2.1. Kontzeptua eta ezaugarriak
  - 2.2. Ahalordearen eremua
3. Ahalordedun singularrak

### 1. LANKIDETZA ETA ORDEZKAPENA MERKATARITZAKO KODEAN

Bere negozioa aurrera emateko enpresariak, edo merkatariak, baliabide ekonomiko eta pertsonal desberdinak antolatzen ditu. Beste pertsona batzuen lankidetza behar duela bere jardueran argia da eta ez du azalpen berezirik behar. Lankide horiekin duen harremana era desberdinetakoa izaten da eta juridikoki izaera desberdina izan dezake. Batetik langileak izango ditu, menpekoak, eta lan zuzenbideari lotuta daudenak. Eta bestetik lankide independenteak ere izan ditzake, merkatariak direnak eta merkataritzako kontratu desberdinez lotzen direnak (komisiogileak, agenteak).

Merkataritzako kodeak merkatoriaren lankidetza bigarren liburuaren hirugarren tituluan arautzen du. “Merkataritzako komisioa” izenburuarekin komisio kontratua (merkataritzako mandatua) jasotzen du (244-280 artk.) eta honekin batera, eraentza bereziarekin, ordezkapena merkataritzako zuzenbidean (281-302 artk.).

Merkataritzako mandatua<sup>1</sup> komisio deitzen da MKko 44. artikuluan eta kontratu horren bitartez komisiopartzaileak egiten duen merkatoriaren interesen gestioa antolatzen da<sup>2</sup>. Baina kontratu honek ez du garrantzi berezirik merkatoriaren ordezkapenaren eremuan, horregatik ez da aztertuko ikasgai honetan.

Ikusiko duguna, beraz, hirugarren tituloaren bigarren sekzioa izango da: Merkataritzako mandatuaren beste modalitate batzuk. Faktorea, dependiente eta langinak (*mancebos*). Pertsona hauek dira, MKko 281. artikuloren arabera, enpresariak trafiko osoa edo zati bat bere izenean gauzatzeko, nola trafiko horretan laguntzeko, izendatzen dituenak. Merkatoriaren borondatezko ordezkariak dira, beraz ordezkapen horren fundamentua bien artean egindako ahalordetze negozio juridikoa da. Iturri hau, dena den, itxura juridikoaren printzipioarekin osatu behar da trafikoa eta fede honeko hirugarrenak babesteko.

### 2. AHALORDEDUN OROKORRA

---

<sup>1</sup> Mandatua kode zibilean 1709. artikuluan definitzen da: mandatu kontratuaren bidez,

<sup>2</sup> Merkataritzako kodetik kanpo, agentziaren legean (12/1992), beste merkatoriaren kolaborazaila bat arautzen da: agentea.

## 2.1. Kontzeptua eta ezaugarriak

MKko 283. artikulorearen arabera faktorea da merkatoriaren izenean, honen baimenarekin, eta emandako ahalmenen barnean, enpresa kudeatzen duen gerentea.

*(“El gerente de una empresa o establecimiento fabril o comercial por cuenta ajena, autorizado para administrarlo, dirigirlo y contratar sobre las cosas concernientes a él con más o menos facultades, según haya tenido por conveniente el propietario, tendrá el concepto legal de factor...”).*

Faktore edo gerente horrek jarduteko gaitasun osoa izan behar du eta merkataria emandako ahalordea (282 art.). Faktorea da merkataritzako jardura garatzen duena, baina ez du bere kontura egiten, beste batenera baizik, horregatik ez da bera merkataria.

Faktoreak beti bere mandatariaren izenean kontratatzen du eta izenpetzen dituen dokumentu guztietan bere ordezkatuaren izenean egiten duela adierazi behar du (284 art.). Ordezkapen zuzenaren kasuan gaude, beraz. Horrela kontratatzen denean obligazioak merkatoriarenak dira, negozioaren titulodunarenak, eta hirugarrenak ezingo dio faktoreari erantzukizunik eskatu (285 art.). Baina faktoreak bere izen propioan kontratatuko balu, bera izango da erantzule; dena den, merkatoriaren kontura egin badu, hirugarrenak aukera izango du merkatoriari edo faktoreari erantzukizuna eskatzeko (287 art.).

Merkatoriaren eta faktorearen artean dagoen harremana bikoitza dela esan dezakegu: alde batetik, enpresak hirugarrenekin dituen harremanen ikuspegitik, mandatu kontratu bat ematen da bien artean; baina barneko ikuspegitik lan harreman bat dago. Gerentea zuzendaritzaren maila altuenean kokatzen denean, lan harremana izaera berezikoa da (goi zuzendaritzako pertsonala) eta eraentza berezi du: 1382/1985 ED. Bestela lan harremanari langileen estatutua aplikatuko zaio.

Merkataritzako Erregistroaren Erregelamenduaren arabera (87.2. art.) faktorearen ahalordea inskribatu egin behar da, baina inskripzio horrek izaera deklaratzaileria du. Inskribatzearen edo ez inskribatzearen ondorioak publizitate materialaren printzipioa jarraituz ulertu behar dira (MK 21. art.).

Ahalordea iraungiko da errelokazio espresuagatik (290. art.); merkataria enpresa besterentzeagatik (291 I. art.) edo faktoreak uko egiteagatik (KZ 1732.2. art. analogiaz): baina merkatoriaren heriotzak ez dauka iraungitze efektu hori (290. art.).

## 2.2. Ahalordearen eremua

Urteetan eztabaidatu zen espainiar doktrinan faktorearen ahalordearen eremuaren arazoa: batzuentzat legez finkatua zegoela ulertu beharra zegoen, trafikoaren eta fede honeko hirugarrenen interesean, eta beste batzuentzako kontratuz finkatu behar zela ulertzen zen. Eztabaida konpondutzat eman zen,

lehenengo tesia nagusitu zelarik, baina berriro ere sortu da azken urteetan konfidantzan oinarritzen den erantzukizunaren pentsamendua garatzen joan den einean.

Argi izan behar den lehenengo ideia ahalordearen orokortasunarena da. Kodeak ahalordetu orokorra eta singularrak desberdintzen ditu, lehenengoaren ahalordea merkataritzako erregistroan inskribatu behar delarik eta besteena ez. Baina kodeak dio, baita, faktoreak merkataria emandako ahalmenak izango dituela: *“más o menos facultades, según haya tenido por conveniente el propietario”*. Beraz, ahalordea orokorra da, baina mugak izan ditzake: norainokoak? Eta zer ondorioekin?

Bi tesi defendatu dita galdera hauei erantzun bat ematerakoan: Ahalorde tipiko mugaezinaren tesia eta ahalorde mugagarriaren tesia.

- Ahalorde tipiko mugaezinaren tesia<sup>3</sup>

Tesi honentzako MKko 283. artikuluan aipatzen diren ahalordearen mugak ez dira hirugarrenei aurkajargarriak, hau da beraien eraginkortasuna merkataria eta faktorearen arteko barneko harremanetara mugatzen da. Merkataria batek ahalordetu orokor bat izendatzen duenean hirugarrenek izan dezaketen konfidantza babestu behar da eta ahalorde hori orokor bezala ulertu behar da, hau da, mugarik gabekoa. Horrela egiten du kodeak 286. artikuluan.

Artikulo honen arabera establezimendu, fabrika edo merkataritzako enpresa bateko ageriko faktoreak egindako kontratuak enpresa edo sozietatearen jabeak egin dituela uste izango da, nahiz eta kontratua egitean faktoreak ez adierazi nagusiaren izenean ari zela, eta ezin izango da alegatu konfidantza abusua edo ahalmenen urratzea egon dela, ezta faktore hori objektu diren efektuez jabetu denik ere; betiere, kontratu horiek establezimenduaren jarduera edo trafikoaren objektuei buruzkoak izan behar dira, eta bestelakoak izanez gero, faktoreak merkatariearen aginduz jardutea edota horrek faktorearen kudeaketa onartzea, dela esanbidez, dela ekintza positiboen bidez, ematen bada.

- Ahalorde mugagarriaren tesia<sup>4</sup>

Kontrako tesia izan da nagusitu dena, bai doktrinan, bai jurisprudenzian. Tesi honetzako bi supostu desberdindu behar dira: merkataritzako erregistroan inskribatu den ahalordearena eta inskribatu ez denarena. Faktorearen izendapena eta ahalordea inskribatu direnean (*factor expreso*), MKko 283. artikuloa da aplikagarri, beraz, inskribatutako mugak aurkajargarriak dira MKko 21. artikuloa jarraituz (publizitate materialaren printzipioa). Ahalorde orokorra ez da ahalorde mugagabea,

<sup>3</sup> Garriguesek garatutako doktrina hau, Sanchez Calerok edo Bercovitzek defendatu dute.

<sup>4</sup> Ikus De Eizaguirre, *Derecho Mercantil*, 2008, 310.

eta merkatariak gorde dezake bere eskuetan hainbat erabakiren kontrola.

MKko 286. artikuloa kontutan izan beharko da ahalordea inskribatu ez denean, faktore nabarmenaren edo ageriaren kasuan (*factor notorio*). Aurreko kasuan hirugarrenek badute, erregistroa kontsultatuz, ahalordearen edukia ezagutzeko aukera. Faktorea inskribatu ez denean, aldiz, ez dute aukera hori. Hor bai, beharrezkoa dela trafikoaren segurtasuna eta fede honeko hirugarrenen interesak babestea. Artikulo hau, beraz, itxura juridikoaren teoriaren adibide bat litzake: itxura sortu duenak, merkatariak, bertan oinarritzen den konfidantzaren arabera jardun beharko du.

Tesi honek oztopo bat aurkitzen du MKko 21. artikuluan: kodeak dio inskribatutako egintzak aurkajargarriak direla BORMEn argitaratzen direnetik, baina faktorearen ahalordearen edukia ez da argitaratzen; argitaratzen den bakarra izendapen eta kargua kentzea dira. Ahalordearen eremua inskribatuta geratzen da dagokion erregistroan baina ez da boletinaren bitartez ezagutzera ematen. Tesi honen partaideak zera diote: aurkajargarria da ahalordea argitaratzen denetik, baina erregistroaren edukiarekin.

### 3. AHALORDEDUN SINGULARRAK

Kodeak 292. eta 293. artikuluetan beste bi figura aipatzen ditu: dependienteak (*dependientes*) eta langinak (*mancebos*). Lehenengoak dio faktoreei ez ezik, merkatariek beste pertsona batzuei ere agindu ahal dietela beraien trafikoari lotutako eragiketa bat edo batzuk gauzatzeko haien izenean eta kontura; agindu hori idatziz nahiz ahoz eman daiteke baina ez da inskribatzen. Mandatari berezi hauek betebeharrak sortuko dituzte nagusiarentzat soilik agindutako arloaren barruan aritzen badira. Beraien ahalordea, beraz, singularra edo berezia da. Hemen kokatu behar ditugu enpresetako erosketen arduraduna (*jefe de compras*), salmenten arduraduna (*jefe de ventas*), dendetako dependienteak, e.a.